


Euskal AEko Administrazio Publikoen defizita BPGd-aren % 6,5 izan zen 2020an, 4.648 milioi eurora iritsiz

Defizita 3.981 milioi euro handitu zen aurreko urtearen aldean

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoek (Euskal Administrazioak, Estatuaren Administrazio Lurralderatua eta Gizarte Segurantzaren Lurralderatua) 4.648 milioi euroko defizita izan zuten 2020an. Horrek 3.981 milioiko igoera ekarri zuen 2019arekin alderatuta, eta BPGd-aren % 6,5era iritsi zen, aurreko urtean baino ehuneko 5,7 puntu gehiago, Eustatek Europar Batasuneko Kontu Nazionalen eta Eskualdekoen Europako Sistemak (SEC-2010) ezarritako irizpideen arabera landutako datuak kontuan hartuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen saldo negatiboaren igoera, 2020an, COVID-19ak eragindako egoera ekonomikoaren ondorio izan zen, baliabide ez-finantzarioak % 5,6 jaitsi baitziren, hau da, 1.633 milioi gutxiago; eta, bestalde, enplegu ez-finantzarioak % 7,8 gehitu ziren, hau da, 2019an baino 2.348 milioi gehiago.

Saldoaren bilakaera negatibo hori inguruko herrialdeetan ere gertatu zen. Hala, Europar Batasuneko 27 herrialdeetan, BPGd-an % 6,8ko **defizita** izan zen, ehuneko 6,2 puntu igoz 2019aren aldean. Espainian defizita ehuneko 7,2 puntu handitu zen, 2019ko BPGd-aren % 3,1etik 2020ko % 10,3ra.



Iturriak: Eustat. Administrazio publikoen kontuak eta Eurostat

Erakundeen ikuspegitik, euskal administrazioek (Eusko Jaurilaritza, Foru Aldundiak, Udalerakundeak eta Administrazio Publiko gisa sektorizatutako mendeko erakundeak) 1.574 milioi eurotan egin zuten okerrera euren saldoan, 2019an 769 milioiko **finantzaketa-ahalmena (superabita)** izatetik 2020an 805 milioiko **finantzaketa-beharra (defizita)** izatera igaro baitziren.

Administrazio Lurralderatuaren multzoak (Estatua gehi Gizarte Segurantzak) ere bilakaera negatiboa izan zuen, **finantzaketa-beharra (defizita)** 2.406 milioi eurotan handitu baitzen; hala, 2019an -1.437 milioiko saldoa izatetik 2020an -3.843 milioikoa izatera pasatu zen.

Euskal AEko herri administrazioen aurrezki garbia eta finantza-gaitasuna (+) edo finantza-beharra (-) (milaka euro). 2020

	Finantzazkoak ez diren baliabideak	Finantzazkoak ez diren erabilerak	Aurrezki garbia	Finantzatzeko ahalmena(+) beharizana(-)
—Herri Administrazioak	27.695.460	32.343.562	-3.414.240	-4.648.103
Estatuaren administrazioa + Gizarte Segurantzak Lurralderatua	11.756.826	15.599.812	-3.616.689	-3.842.985
Estatuaren administrazioa Lurralderatua	2.461.142	2.385.502	307.789	75.640
Gizarte Segurantzak Lurralderatua	9.295.685	13.214.310	-3.924.478	-3.918.625
Euskal administrazioak	18.531.012	19.336.129	202.449	-805.117
Eusko Jaurilaritza	11.029.586	11.713.445	-178.120	-683.859
Araba/Álava	2.765.881	2.760.940	21.205	4.940
Bizkaia	8.716.482	8.825.515	296.413	-109.033
Gipuzkoa	5.579.279	5.596.443	62.951	-17.164

Sartutako erakundeak, ikusi ohar metodologikoa

Data 2022ko Uztailaren 27a

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen kontuak

Zehazkiago, **Estatuaren Administrazio Lurralderatuak** 2019ko 732 milioi euroko saldo positibotik edo finantzatzeko ahalmenetik 2020an 76 milioikoa izatera murriztu zuen, batez ere transferentzietako gastuaren gehikuntzaren ondorioz; zehazki, COVID funtsari dagokion Euskal Autonomia Erkidegorako partida 568 milioi eurokoa izan zen 2020an.

Bestalde, **Lurralderatutako Gizarte Segurantzak** ere bere saldoa murriztu egin zuen 2020an, 2019an erregistratutakoa baino 1.750 milioi gehiagoko defizita erregistratuz; izan ere, baliabide ez-finantzarioak (batez ere gizarte-kotizazioak) pixka bat murriztu ziren (% 0,08), eta ez-finantzetako enpleguak, berriz, % 15,2 gehitu ziren. Zehazki, gizarte-prestazioak (batez ere pentsioak eta langabezia-prestazioak) % 12,5 gehitu ziren, hau da, 1.397 milioi gehiago; 2020an 12.586 milioi izan ziren. Gorakada handi hori COVID-19aren ondorioak arintzeko hartutako prestazioen inguruko neurrien ondorioa izan zen.

Euskal administrazioei dagokienez, talde honetako erakunde guztien saldoak okerrera egin zuten. Eusko Jaurilaritzako erakundearen finantzaketa-ahalmena, oro har, 1.047 milioi euro murriztu zen, 2019ko 363 milioi euroko saldo positibotik 2020ko 684 milioiko saldo negatibora igaroz; izan ere, finantzazkoak ez diren baliabideak % 4,8 murriztu ziren, 11.030 milioira iritsiz, eta finantzazkoak ez diren enpleguak % 4,4 handitu ziren, 11.713 milioira iritsiz.

Arabako foru- eta udal-administrazioen multzoak, oro har, 5 milioi euroko saldo positiboa izan zuen, aurreko urtean baino 31 milioi gutxiago. Bizkaia 2019an 213 milioiko finantzaketa-ahalmena erregistratetik 2020an 109 milioiko finantzaketa-beharra izatera igaro zen. Gipuzkoako administrazioetan, 2019an 157 milioiko finantzaketa-ahalmena izatetik 2020an 17 milioiko defizita izatera igaro ziren.

Euskal AEko administrazio publikoek 27.695 milioi euroko baliabide ez-finantzarioak kudeatu zituzten guztira 2020an —2019an baino % 5,6 gutxiago—; enplegu ez-finantzarioak, berriz, % 7,8 hazi ziren, 32.344 milioiraino. Eraitza hau izan zen: finantzaketa-beharra 3.981 milioi euro handitu zela aurreko urtearen aldean, eta 4.648 milioi eurokoa izan zela 2020an.

Euskal AEko Herri Administrazioen baliabide-enplegu ez-finantzetakoak (milaka euro). 2019-2020

	2019	2020	2020/2019 (%)
Finantzazkoak ez diren baliabideak	29.328.089	27.695.460	-5,6
Merkatuko ekoizpena eta azken erabilera propioarentzako ekoizpena	1.201.525	1.039.227	-13,5
Merkatuko ez den produkzioaren ziozko ordainketak	425.009	445.991	4,9
Ekoizpen eta inportazio zergak (kobratzekoak)	9.015.679	7.990.846	-11,4
Jabetzaren errentak	258.272	191.598	-25,8
Errenta, ondare eta abarren gaineko zergak	7.856.079	7.528.321	-4,2
Gizarte-kotizazioak	9.496.912	9.504.729	0,1
Beste transferentzia arrunt batzuk	883.928	839.465	-5,0
Kapitalzergak (kobratzekoak)	214.655	211.242	-1,6
Inbertsiorako laguntzak (kobratzekoak)	60.782	91.160	50,0
Bestelako kapital-transferentziak (kobratzekoak) (1)	-84.753	-147.119	73,6
Finantzazkoak ez diren erabilerak	29.995.601	32.343.562	7,8
Alokatuen ordainsariak	7.683.656	7.841.342	2,1
-Birtateko kontsumoa	4.057.180	4.168.969	2,8
Dirulaguntzak (ordaintzekoak)	617.556	996.269	61,3
Produktzioaren gaineko beste zerga batzuk	36.195	37.142	2,6
Jabetzaren errentak	245.620	215.939	-12,1
Errentaren, ondarearen eta abarren gaineko zerga arruntak (ordaintzekoak)	485	982	102,3
Espezieko gizarte-transferentziak ez diren gizarte-prestazioak	12.328.465	13.807.304	12,0
Gauzak gizarte-transferentziak Merkatuan erositako ekoizpena	2.188.209	2.234.381	2,1
Beste transferentzia arrunt batzuk	832.479	844.807	1,5
Kapitalaren osaketa gordina	1.511.918	1.556.373	2,9
Kapital transferentziak (ordaintzekoak)	476.021	635.546	33,5
Ezfinantzetako aktibo ez ekoizten erosteko garbiak	17.816	4.508	-74,7
Aurrezki garbia	406.456	-3.414.240	-940,0
Finantzatzeko ahalmena(+) beharrezana(-)	-667.512	-4.648.103	596,3

(1) Barne ditu nekez lortuko den diru-bilketagatiko kapital-transferentziak

Data 2022ko Uztailaren 27a

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen kontuak

Baliabide ez-finantzarioen barruan, Gizarte-kotizazioak partidak % 0,1eko hazkunde txikia izan zuen (aurreko urtean baino 8 milioi gehiago), 9.505 milioira iritsiz 2020an, eta

pisu handiena zuen partida izaten jarraitu zuen (baliabideen % 34,3), gainerako baliabideek jaitsiera handiak izan zituztelako. *Produkzioaren eta inportazioen gaineko zergak* % 11,4 murriztu ziren, 7.991 milioitan kokatuz (baliabideen % 28,9), eta *Errentaren, ondarearen eta abarren gaineko zergak* % 4,2 jaitsi ziren, 7.528 milioiraino, baliabideen % 27,2ra. Bi zerga-partida horien beherakada 2019an baino 1.353 milioi gutxiago izan zen. Laburbilduz, baliabide ez-finantzarioak 1.633 milioi murriztu ziren 2020an aurreko urtearen aldean.

Enplegu ez-finantzarioak 32.344 milioi eurokoak izan ziren, 2019an baino 2.348 milioi gehiago. Partida guztiek egin zuten gora, *Jabetza-errentek* izan ezik, % 12,1 egin baitzuten behera, eta 216 milioitan kokatu ziren (enpleguen % 0,7). *Espezieko gizarte-transferentziak ez diren gizarte-prestazioek* (Gizarte Segurantzaren eta gizarte-laguntzaren prestazioak barne) izan zuten hazkunderik handiena, % 12,0, hau da, aurreko urtean baino 1.479 milioi gehiago, eta enpleguen % 42,7 izan ziren. *Bitarteko kontsumoa* partida % 2,8 hazi zen eta *Soldatapekoen ordainsaria* % 2,1 (2019an baino 269 milioi gehiago), enpleguen % 12,9 eta % 24,2 suposatuz, hurrenez hurren. Kapital-enpleguak (*Kapital-eraketa gordina, Kapital-transferentziak (ordaintzekoak) eta Beste aktibo batzuen eskuratzeak*) gastuaren % 6,8 izan ziren eta 190 milioi gehitu ziren aurreko urtearen aldean, guztira 2.196 milioira iritsiz. *Dirulaguntzak (ordaintzekoak)* % 61,3 handitu ziren 996 milioira iritsi arte, 2019an baino 379 milioi gehiago.

Herri administrazioen azken eskaria. Euskal AE (milaka euro). 2016-2020

	2017	%	2018	%	2019	%	2020	%
Herri administrazioen azken kontsumoko gastua	12.026.710	89,8	12.321.209	90,1	13.079.809	89,6	13.603.897	89,7
Herri administrazioen kapital finkoaren eraketa gordina	1.364.658	10,2	1.358.033	9,9	1.511.918	10,4	1.556.373	10,3
Barne eskari publikoa	13.391.368	100,0	13.679.242	100,0	14.591.727	100,0	15.160.270	100,0

Data 2022ko Uztailaren 27a

Iturria: Eustat, Administrazio publikoen kontuak

Administrazio publikoen **azken gastuaren egiturari**, Azken Kontsumoko Gastua —hau da, administrazioek ondasun eta zerbitzuen ekoizpenean egindako gastua gehi etxeei hornitzen zaizkien merkatuko ekoizleek ekoiztutako ondasun eta zerbitzuak (espezietako gizarte-transferentziak) batuta— Barne Eskari Publikoaren % 89,7 izan zen 2020an —aurreko urtean baino ehuneko 0,1 puntu gehiago—. Kapital Eraketa Gordina (Inbertsio Publikoa) 1,556 milioi eurora iritsi zen, aurreko urtean baino % 2,9 gehiago.

Erakundearen aldetik, inbertsioen % 94,5 Euskal Administrazioek egin zuten, eta gastua 15 milioi handitu zuten, 2020an 1.470 milioira iritsiz. Bestalde, Estatuko Administrazio Lurralderatuari eta Gizarte Segurantzari dagokien zenbatekoa 86 milioi eurokoa izan zen 2020an, aurreko urtean baino 29 milioi gehiago.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Telf.: 945 01 75 62